



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

REMENTERIAK KUDEAKETA-AGINDUA ETA KUPO BIDEZKO FINANTZAKETEA ESKATU DITU BARRIRO BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN KONTROLERAKO OSOKO BATZARREAN, AHT-A “GARAIZ ETA BEHAR DAN MODUAN” AMAITZEKO

- **Foru Gobernua kontroletako Ikasturte politiko honetako lehenengo saioa hiru itaunegaz eta ahozko sei erantzun-eskegaz amaitu da.**
- **Batzar Nagusietako oposizinoko taldeek Bizkaiko eredu turistiko barriaren, AHTa lurraldera iristearen eta baso-politikaren ganean galdetu deustie Aldundiari.**

(Gernikan, 2021eko urriaren 27an). Gernikako Batzar Etxeak kontroleko beste batzar bat hartu dau gaur, eta oposizioak Foru Aldundiak Euskal Y-aren amaieran izan dauen inplikazioaren ganean galdetu deutso Foru Gobernuari. Politika Orokorreko osoko batzarrean egin eban moduan, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak 2006. urtean hasi ziran obrak amaitzeko kudeaketa agindua euskal erakundeei emoteko eskatu dau barriro, “lurzoruak, euskal uriburuetakoko geltokien eraikuntza eta geltokiak lurperatzearen ondorioz sortu daitekezan lurren urigintza-aprobetxamendua” barru dirala. Finantzaketea Kupo bidez egingo litzateke.

Erantzun horrek ez dau asebate Talde Berezia-PP Bizkaia taldea. Talde horrek Bizkairako proiektu “estrategiko” bat gauzatzean atzerapen gehiago ez gertatzeko neurri zehatzak eskatu eutsazan, baina, halanda be, ez dau “ezelango neurri zehatzik” proponidu, Amaya Fernandez bozeroalearen eretziz. Bozeroale popularrak, hauteskunde-kanpainan proiektu horretan Aldundiak ez ebala “ezer erabagiten” esan ebala gogorarazo deuso Rementeriak. Espainiako Gobernuak “etxeko lanak” egitea eskatzen dabenez, metroa Errekalderra eta Galdakaora zabaltzeko proiektuakaz edo Arrontegiko zubiaren alternatibagaz gauza bera egitera konbidau dau Fernandezek.

Rementeriak uste dau iraileko osoko bilkuran egin eban eskaeraren helburua Euskadin AHTa “denpora gitxian” martxan jartea bermatzea dala, Estaduko Aurrekontuetan partida bat egotearen menpe ez egoteko. Ahaldun nagusiak azaldu dauenez, PPK ados egon beharko leuke euskal erakundeek obren ardurea hartzeagaz, izan be, horixe adostu eban Rajoyren Gobernuak Eusko Jaurlaritzagaz Gipuzkoako tarterako. “Ados ez bazagoze, atzerapen horreek be onartu beharko zeunkiez”, esan deutso.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ahaldun nagusiaren eretziz, “proposamen bakarra” Euskal erakunde guztiei kudeaketa agindua emotea da, “behingoz, abiadura handiko trena denpora eta forma aldetik errealidadea izango dala bermatzeko, ondo zehaztutako partidakaz; eta gero, Kupoaren likidazioa egitea, obrak amaitzeko”. Behin agindua emonda, euskal erakundeen artean ezarriko litzateke zelan egin behar dan likidazio hori, “kupoa guztiok ordaintzen dogulako, bizkaitarrok barne”. Amaitzeko, azken hauteskunde kanpainan, 2019an, Bizkaiak AHTren finantzaketan parte hartzearen aurrean Fernandezek adierazo eban “ezezko borobila” arpegiratu deutso Rementeriak.

Modu berean, ahaldun nagusiak Gernikako atrilera urten dau, EH Bilduri argindarraren fakturarengaitik erantzuteko eta, zehatzago esanda, Aldundiak argindarra jaisten zelan lagun daiken argitzeko. Sare Adimendunen zentroaren aurkezpenan egin eban agerraldian Ignacio Sanchez Galanekin atara eban eta “asko estutzen dauen” argazkian, norbanakoei eta enpresei argindarraren prezioa igon izana konpontzeko euskal argindar konpainiari neurriak eskatzeko “exijentziaren” faltea sumatu eban EH Bilduk. Talde abertzaleak gogoratuazo dauenez, horrek eragin nabarmena izan dau Bizkaian, 800 behargin baino gehiago dituan Sidenorren Basauriko lantegia geratzean, adibidez.

Rementeriak Iberdrolako presidentearen aurrean urriaren 5ean emondako mezua errepikau dau, “guztiei jagoken mailan egoteko” eskatuz, bakotzak bere erantzukizunetik “akordio barriak” lortzeko. Energiaren sektoreak Bizkaiko ongizate estatuari eusten laguntzeko daukan eginkizuna defendidu dau. Izan be, Ogasunaren kutxetan zergetan “3.000 milioi euro”, “Bizkaiko bilketaren herena”, ixten dituen “238” enpresetako “15.488” lanpostu zuzen batzen ditu.

BIZKAIRAKO TURISMO-ESTRATEGIA

Elkarrekin Bizkaiak egindako itaun batean, Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapenerako foru diputatuak Aldundiaren turismo arloko ekintza plana errepasau dau. Bilbao-Bizkaiaren turismo-estrategia barriaren, hau da, Bizkaiko Batzar Nagusiek igazko abenduaren 23an emondako aginduaren, inguruan galdetu deusenean foru-arduradunak esan dau “aurrerapausu handiak” emon dirala estrategia hori prestetako prozesuan, eta azkenengo dokumentua “datozan asteetan” amaituko dala eta datorren urtearen hasieran jente aurrean aurkeztuko dala.

Ainara Basurko, osasun-krisiari aurre egiteko sektorean mikrokredituak martxan jartea eta barruko turismoa sustatzeko bonuak edo kanpainak abiarazotea ahalbidetu dauen Bilbao-Bizkaia 2020-2021 Birgaitze Turistikorako Planean be zentrau da. Halanda be, foru-estrategia barria harago doa, eta 2030. urtera



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

begira jarri da, Agenda 2030agaz eta Nazino Batuen GJHekaz bat etorrira. Bertan, erronka globalakaz bat datozen sektorearen etorkizuneko erronkak ezarten dira, horreen artean “digitalizazioa, jasangarritasuna eta barrikuntzea”, laburbildu dau.

BASO-POLITIKEA

Beste alde batetik, EH Bilduk baso-politikaren ganean galdetu deutso Aldundiari. Bizkaiko Foru Aldundiak mendien inguruko foru arauaren aldaketea iragarri eban iraganean, Bizkaiko lurzoruetan eukalipto landatzeko baimenetan moratoria bat ezarteko. Koalitzino abertzaleak kritikau egin dau orain arte zugatz hori “kontrol barik” zabaldu izana, eta, hori dala eta, Iratxe Arriola ordezkariak eskatu dau Aldundiak azal daiala aldaketa hori egiten dan bitartean zelan berreskuratuko dituan espezie horrek kaltetutako lurak eta ur-iturriak.

Amaia Antxustegi Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatuak ez dau Foru Araua onartzeko datarik jarri, baina aurretik moratoria onartuta “denporea irabazi” gura dauela ohartarazo dau. Bere saila gai hori lege aldetik aztertzen ari da debeku hori sartzeko, sektorearen “ingurumen, ekonomia eta gizarte” arloetako orekan behar egiten jarraitzeko lege-euskarri bat lortuz.

Antxustegik arretea jarri gura izan dau 50eko hamarkadan ia existiduten ez zan baso-estergi bat izatearen garrantzian. Hamarkadetan zehar, lurzoruaren higadura gelditu egin da basoberritzeko politiken bidez, eta, horri esker, gaur egun Bizkaiak “131.676” baso-hektarea ditu, lurraldearen ia % 60. Arriolak kritikau egin dau lur horren “% 20 baino gutxiago” egotea bertako espezieek okupata.

AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK

Oposizinoak, ahozko erantzun-eskeen txandan, honeen ganean galdetu deutso Foru Gobernuari: txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea bultzatzea, elektrizidadearen prezioa, trena Durangaldean eta Busturialdean, egoitzetarako bisita-protokolo barria, Gizarte Ekintza Saileko ikuskaritza zerbitzuaren funtzino pedagogikoa eta Zornotzako Forjas bulegoen eraikinaren eraispena.

Egoitzetako bisiten aldaketari jagokonez, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatuak baieztu egin dau urrian zehar bere sailak jakinarazpen bana bialdu eutsela egoitzei eta familiei, bisita-erregimenean ezarrira egozan mugak ezabatu egin dirala jakinarazoteko, eta Osasun Sailak musukoak erabilteko eta barrukaldean 2 metroko tartea gordetako betebeharra ezarri dauela gogorarazo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dau. Osasun agintarien neurriak eskubide bi betearazo gura ditu, bere ustez, “egoiliarren osasuna zaintzeko eskubidea eta ongizate emozionala bermatzeko eskubidea”.

EH Bilduk bere “erantzukizun publikoa” betetera konbidau dau, egoitza guztietan bisitak “bardin” bermatzeko neurrien bidez; izan be, gaur egungo egoera “diskriminazinozkoa” da, enpresek senideen bisitei “mugak” jarten jarraitzen dabelako, Arantza Urkaregi batzarkideak ziurtatu dauenez. Murilloren ustez, barriz, neurri horreek, “pilaketak saihesteko” hartutako neurrien artean dagoz. Diputatuak azaldu dauenez, gai horregaitik “kexa bi” jaso ditue, eta daborduko erantzun ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

REMENTERIA INSISTE EN EL PLENO DE CONTROL DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA POR LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN Y LA FINANCIACIÓN VÍA CUPO PARA CULMINAR EL TAV “EN TIEMPO Y FORMA”

- **La primera sesión de control al Gobierno foral del curso político se cierra con el debate de tres interpelaciones y seis preguntas orales.**
- **Los grupos junteros de la oposición han interpelado a la Diputación por el nuevo modelo turístico de Bizkaia, la llegada del TAV al territorio, y la política forestal.**

(Gernika, a 27 de octubre de 2021). La Casa de Juntas de Gernika ha acogido hoy un nuevo pleno de control en el que la oposición ha interpelado al Gobierno foral por la implicación de la Diputación en la culminación de la Y Vasca. Como ya hiciera en el pleno de Política General, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha apostado por la encomienda de gestión a las instituciones vascas para terminar unas obras que se iniciaron en el año 2006, incluyendo “los suelos, la construcción de las estaciones en las capitales vascas y el aprovechamiento urbanístico de los terrenos que puedan surgir como consecuencia del soterramiento de las estaciones”. La financiación se llevaría a cabo vía Cupo.

La respuesta no ha contentado al grupo Mixto-PP Bizkaia que le había pedido actuaciones desde la Diputación para que no se produzcan más retrasos en la culminación de un proyecto “estratégico” para Bizkaia, y, sin embargo, no ha aportado “ninguna medida concreta”, según su portavoz Amaya Fernández. La portavoz de los populares en la Cámara vizcaína ha recordado las palabras del propio Rementeria en campaña electoral cuando dijo que la Diputación “no pintaba nada” en este proyecto. Puesto que piden que el Gobierno central haga los “deberes”, Fernández le ha invitado a hacer lo mismo con los proyectos de ampliación del metro a Rekalde y Galdakao, o con la alternativa al puente de Rontegi.

Rementeria se ha reafirmado en que la petición que hizo en el pleno de septiembre pretende garantizar que el TAV se ponga en marcha en Euskadi “en poco tiempo”, para no tener que depender de que haya una partida en los próximos Presupuestos del Estado. El diputado general ha explicado que el PP tendría que estar de acuerdo con que las instituciones vascas se hagan cargo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la obras, ya que es lo que acordó el Gobierno de Rajoy con el Gobierno vasco para el tramo guipuzcoano, “Si no están de acuerdo asuman también esas demoras”, le ha pedido.

A juicio del diputado general, “no hay mayor propuesta” que presentar una fórmula de encomienda de gestión a todas las instituciones vascas “de una vez por todas, para poder garantizar que el tren de alta velocidad sea una realidad en tiempo y forma, y con partidas bien determinadas; y luego hacer la liquidación del Cupo para acabar las obras”. Una vez que se haga la encomienda, se establecería entre las instituciones vascas cómo se tiene que hacer esa liquidación, “porque el Cupo lo pagamos todos y todas, incluidos los vizcaínos y vizcaínas”. Rementeria ha terminado afeando a Fernández su postura en la última campaña electoral, en 2019, cuando expresó su “no rotundo” a que Bizkaia participara en la financiación del TAV.

Asimismo, el diputado general ha salido al atril de Gernika para responder a EH Bildu por la factura de la luz y, en concreto, por cómo la Diputación puede contribuir a su rebaja. En la foto, “que aprieta mucho”, con Ignacio Sánchez Galán en la presentación del centro de Redes Inteligentes, EH Bildu echó en falta la “exigencia” de pedir medidas a la eléctrica vasca para buscar una solución a los sucesivos incrementos del precio de la electricidad a particulares y empresas. En Bizkaia sus efectos han sido palpables en el parón de actividad de la planta de Sidenor en Basauri en la que trabajan más de 800 personas, han recordado.

Rementeria ha repetido el mensaje que ya lanzó el 5 de octubre ante el presidente de Iberdrola instando a “todos a estar a la altura” para llegar a “nuevos acuerdos” cada uno desde su responsabilidad. Ha defendido el papel del sector energético para ayudar a mantener el estado del bienestar de Bizkaia, los “15.488” empleos directos de las “238” empresas que dejan en las arcas de Hacienda “3.000 millones de euros” en impuestos, “un tercio de la recaudación de Bizkaia”.

NUEVA ESTRATEGIA TURÍSTICA PARA BIZKAIA

En una interpelación de Elkarrekin Bizkaia, la diputada foral de Promoción Económica, Ainara Basurko, ha repasado el plan de acción de la Diputación en materia turística. Preguntada por la nueva estrategia turística de Bilbao-Bizkaia, un mandato de las Juntas Generales de Bizkaia del 23 de diciembre del año pasado incluido en una proposición no de norma, la responsable foral ha indicado que se han producido “grandes avances” en la elaboración de esta estrategia, cuyo documento final se finalizará “en las próximas semanas” y el cual se presentará públicamente “a principios del próximo año”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ainara Basurko ha puesto el foco también en el Plan de Rehabilitación Turística Bilbao-Bizkaia 2020-2021, un plan de choque frente a la crisis sanitaria, que ha permitido poner en marcha microcréditos en el sector, y la inclusión de bonos o campañas para promocionar el turismo interior. Sin embargo, la nueva estrategia foral va más allá y pone el horizonte en el año 2030 en alineación con la Agenda 2030 y los ODS de Naciones Unidas. En ella, se establecen los retos del futuro del sector que coinciden con los retos globales, como son “la digitalización, la sostenibilidad y la innovación”, ha resumido.

POLÍTICA FORESTAL

Por su parte, EH Bildu ha interpelado a la Diputación por la política forestal. La Diputación anunció en el pasado la modificación de la norma foral de montes para sellar una moratoria de plantación de eucalipto en los suelos de Bizkaia. La coalición abertzale ha cuestionado que hasta ahora este árbol se haya extendido “sin control” y, por ello, su representante Iratxe Arriola ha pedido que la institución foral explique cómo va a recuperar los suelos dañados por esta especie y las fuentes de agua, mientras llega este cambio normativo.

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, no ha puesto fecha a la aprobación de la Norma Foral pero ha advertido que su intención es “ganar tiempo” con la aprobación previa de una moratoria para el eucalipto. Su departamento está estudiando jurídicamente el asunto para introducir esta prohibición, obteniendo un soporte legal con la intención de seguir trabajando en el equilibrio “medioambiental, económico y social” del sector.

Antxustegi ha querido poner el foco en la importancia de contar con una cubierta forestal que era casi inexistente en los años 50. Durante décadas, la erosión del suelo se ha paralizado mediante políticas de reforestación que han permitido que hoy Bizkaia cuente con “131.676” hectáreas forestales, casi el 60% del territorio. Arriola ha lamentado que “menos del 20%” de este terreno esté ocupado por especies autóctonas.

PREGUNTAS ORALES

La oposición ha interpelado al Gobierno foral a través de preguntas orales por el impulso del sector del comercio minorista y la hostelería, el precio de la electricidad, el tren en el Duranguesado y Busturialdea, el nuevo protocolo de visitas para las residencias, la función pedagógica del servicio de inspección del Departamento de Acción Social y el derribo del edificio de oficinas de Forjas en Amorebieta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto al cambio en las visitas de las residencias, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha confirmado que durante el mes de octubre su departamento mandó sendas comunicaciones a centros residenciales y familias para informarles de la eliminación de los límites que se establecían en el régimen de visitas, recordando que el departamento de Salud del Gobierno vasco ha establecido la obligación del uso de mascarillas y el cumplimiento de una distancia de dos metros en el interior. La medida de las autoridades sanitarias trata de hacer cumplir dos derechos, según él, “el derecho a preservar la salud de los residentes y el derecho a que se garantice el bienestar emocional” de los residentes.

EH Bildu le ha invitado a cumplir con su “responsabilidad pública” mediante medidas que permitan garantizar las visitas en todas las residencias “por igual”, ya que la situación actual dibuja un escenario de “discriminación”, puesto que las empresas “siguen poniendo límites” a las visitas de familiares, ha asegurado la juntera Arantza Urkaregi. Para Murillo, en cambio, forman parte de las medidas adoptadas para “evitar aglomeraciones”. El diputado ha señalado que por esta cuestión se han recibido “dos quejas”, que han sido ya contestadas.